


Errenteriako Musika Kultur Elkartearen 50. urteurrena 1948 - 1998

Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Lehendakaria



Zumardiko kioskoa. 1.948ko Uztailan eraikia.
(Fernando Goñi marrazkia)

aurtengo 1998.gn urteotan, gure herriko talderik zaharrenak, urteurren berezi bat ospatzen du. Hain zuzen, Errenteriako Musika Kultur Elkarteaz ari gara eta era berean noski, bere Musika Bandaz.

XXI. mende berri honen atarian, gure elkarte, bere nortasun ezaugarri diren iturburuak ahaztu gabe, bere barne eta kanpo antolakuntzen eraberritze prozesu baten barne aurkitzen dugu. Lehenik argi eduki behar dugu gure Errenteriako Musika Kultur Elkarte osatu zenean, bere estatutoen lehen hitzetan azaltzen den bezala: "Musikaren zabaltzea gure herrian.." izan zuela helburu nagusizat. Ildo bereetik jarraituz, Musika Bandaren eta Errenteriako Musika Kultur Elkartearen arteko berdintasun - desberdintasunei buruzko azalpen labur bat egitea beharrezkotzat jotzen dut, hitz egiten ari garen gaiari buruzko xehetasunak argi eduki ditzagun: askotan aipatu izan ohi den bezala, gure herriko talderik zaharrenaren aurrean aurkitzen gara. Gure Musika Banda 1864. gn urtean osatu zen (134 urte betetzen ditu aurten beraz). Osatu zenetik zenbait izen eta elkarte desberdinek eraman izan dute herriko Musika Banda aurrera, hasiera batetan "Sociedad Filarmónica" izenburupean ezagutu genuen gure lehen Musika Banda. Geroago "Udal

Musika Banda" izan genuen, honela guda zibil garaira iritsi arte. Urte haietan gertakizunek (guda zibilak) eragindako sakabanatze nabarmen bat jasan behar izan zuelarik, Musika Bandak "Banda de las FET y las Jons" izena hartzea behartua izan zen garaiko agintarien aginduz. Taldearen janzkera ere zeharo aldatu zen (Fet y las Jonseko, uniformea erabiltzera behartuz Musika Banda) garai honetan.

Honela 1948.gn urtera iristen gara, bertan eta beste arrazoi batzuren artean, Musika Bandari zegokionez, normalizazio bide bat aurkitzearen "Errenteriako Musika Kultur Elkarte" osatu zelarik.

Azalpen labur hau egin ondoren, herritarren batek gaia argi ez baldin badu, aurten ospatzen dugun urteurren hau, oraintxe aipatutako "Errenteriako Musika Kultur Elkartearen 50 Urteurrena" dela esango diogu, hain zuzen.

Ospakizun hau dela eta elkarteak, bai Musika Bandari eta bai elkarteari dagokionez, artxibo lan bostiz bat eraman du aurrera. Lan hau, argitaratu berri den "1948 -1998 50 Urteurrena" liburuan aurki dezakegu. Argitarapen honi dagokionez, Errenteriako Musika Kultur Elkarteak, liburu honen bitartez, bi arlo nagusi besterik ez ditu argi utzi nahi izan: lehen, gure Musika Kultur Elkartearen Historia azaldu, sortu aurretik izandako aurrekariak aztertuz, eta bigarrena, 2000. urteari begira bere etorkizunaren ezaugarriak argituz.

Dena den azalpen hau alde batera utziaz, sar gaitzen berriro ere hasieran aipatzen nuen eraberritze prozesu hori (bere barne eta kanpo antolakuntzen eraberritze prozesua) osatzen duten atal desberdinak gainbegiratzera:

- **Lehenengo arloa** bai Musika Banda, bai Elkartearen betebeharre dagokiona da. Bertan bete beharreko lana lau arlotan oinarritu dugu hain zuzen:

Lehen, Musika Bandako partaideen berritze eta ugaritze prozesu bat martxan jarriaz. Abiapuntu bezala eta Musika Bandako partaideei dagokionez, 1987.gn urtean Errenteriako Kontserbatorioko ikasleen sarrera izan genuela. Bigarrena, bai instrumento, bai partituren berritzea dugu. Bertan adibidez ezin dugu ahaztu, gure Musika Bandak gaur egun jotzen duen musikak jasan duen eboluzioa.

Hirugarrena, eskeintzen diren kontzertu eta emaldien antolaketan, hau da, ikuslegoaren eta

musikoen erosotasuna bilatzen saiatuz, emanaldien kokapena hobea egotuz, eta ordutegiak eguneratuz. Prozesu honen adibide argi bat, kontzertuen kokapen berria dugu. Lehen Udaletxeko arkupeetan eskeintzen baziren emanaldiak, oraingoan Foru Plazako "pergolana" eskeintzen dira, aipatutako ikusleago eta musikoen erosotasun gaia kontutan izanik. Zentzu honetan, elkarteak lan bortitza egiten ari da, bai bere bazkideei eta bai herri osoari orokorki luzatzen zaion eskeintza zabaldu eta egokitzeko asmoz.

Eta laugarrena, ildo honetatik jarraituz, 2000. urte horretatik aurrera, Erreterian Musika Hamabostaldia bat zabaltzeko asmoa izango litzateke. Hamabostaldi honek noski, ez luke zer ikusirik Donostian ospatzen denarekin, beste arlo desberdin bat jorratuko bai luke. Ezberdintasuna, era labur batean azaltzearren, aipatuko dut, gure hamabostaldi honek konposatzaile eta sortutako musika talde berrien esku utziko duela ekitaldien erantzunkizuna, gaur egun oraindik ezezagunak diren hainbat eta hainbat musikoen lanak ezagutarazteko eta azken finean sortzen ari den musika berri guzti hori zabaltzearren. Arlo hau behintzat beharrezkotzat jotzen dugu elkartearen XXI. mende horri begira.

- **Bigarren arloa**, elkartearen barne funtzionamenduari dagokiona da. Arlo honetan betetzen ari garen lana, gure artxibo zabalaren informatizazio sistema martxan jartzea da; alde batetik, administrazio, akta, idazki eta abarrei dagokiena eta bestetik, eta dudarik gabe hauxe da alderdirik garrantzitsuena, artxibo musikalariei dagokiona. Kontutan izan behar dugu Erreterian Musika Kultur Elkartearen partituren artxiboa oso zabala dela. Idatzi honetan aipatu izan den bezala gure herrian sortu zen lehen Musika Banda, 1864. urtean osatu zen, talde hartako zenbait partitura gordetzen direla oraindik gure artxibo honetan. Gai honi dagokionez eta gaur egungo informatizazio sistemak eskeintzen diguten posibilitateekin, artxibo berezi hau luzaroan irautea espero dugu, azken finean partitura zahar horiek gure herriko historiaren zati bat besterik ez direlako.

Informatizazio sistema berri honekin aurrera jarraituz, gure elkartearen "Interneten" zabaltzea izan da gure azken urratsa. Bertan "Web" orri bat ireki berri dugula, Europako zein mundu guztiko beste edozein musika elkarteekin harremanetan jartzeaz gain, partitura eta informazioa elkar trukatzeko asmoz. Egia esan, Europan zehar batez ere, oso ugariak dira musika elkarteak eta gure "Web" orriaren bitartez jasotako erantzunak, guk espero baina askoz ere ugariagoak izan dira. Sistema berri honen bitartez beraz, gure artxibo musikala zabaltzeaz gain, bai partiturak jasoaz, bai bidaliz, gure elkartearen antzekoak diren beste zenbait elkartearen

funtzionamendu sistemen berri izatea espero dugu, akatsak zuzendu eta gure elkartearen bertan aplikatu daitezkeen eredu berriak ezagutu ahal izateko.

- **Hirugarren arloa**, Niesseneko Kultur Etxean kokapen egoki bat lortzea izango dugu. Arlo honi dagokionez, Erreterian Musika Kultur Patronatuarekin akordio batetara iritsi garelako, aipatu beharra dago. Era honetan Erreterian Musika Kultur Elkarteak, bertan izango du bere egoitza berria. Zalantzarik gabe arlo hau guztiz garrantzitsua zen elkartearentzat gerora begira, aipatutako aurreko arlotan betetako lana, nekez izango ginelako gai aurrera eramateko, egoitza iraunkor eta egoki bat gabe. Gure eraberritze prozesu honen oinarrietako bat beraz, bete dugu dagoeneko.

- **Laugarren arloa**, gure elkarteak herriko zenbait elkarteekin mantentzen duen harremana sendotzea izango litzateke. Era honetan, urtero bost edo sei alditan, Ereintza, Andra Mari ala beste zenbait elkarteekin elkarlanean iharduten gara zenbait ekintza burutzeko. Hauetako aipagarrienetarikoa bat gure Madalenetako jaien atarian ospatzen den "pregoia" edo San Inazio gure patroien eguneko emanaldiak izan daitezkeelarik. Arlo honi garrantzi handia eman zaio gure elkartearen. Erakunde eta elkarte desberdinen arteko elkarlan honek, harremanak sendotzeaz gain (beti hobe, herriko elkarte guztiak elkarturik egotea, bakoitza bere aldetik egotea baino), herriaren mesederako izaten da, honek jasotzeko kultur eskeintza, askoz zabalago eta aberatsago izango baita.

- **Bostgarren arloa**, elkartearen euskalduntze prozesuan sakontzea izango da. Arlo hau aztertzerakoan, kontutan izan behar dugu Erreterian Musika Kultur Elkartearen sortu zen 1948. urte hartatik, izena, euskaraz bai gaztelaniaz, jarri zitzaioela. Hau da, elkarte elebidun baten aurrean aurkitzen garelako. Ezinbestekoa genuen beraz, bai administralgo, bai akta, bai guk bidalitako edozein komunikazio, elebidun modu horretan jorratzea, honek dakarren lan bikoitzarekin.

Arlo honi dagokionez, aipatu beharra dago azken urteotan aurrera eramandako neurri berri honek, oso jarrera ona izan duela gure bazkideengan eta bidaltzen den eskutitz bakoitzak lan bikoitza suposatzen arren, bertan aurrera jarraituko dugula gure elkartearen euskalduntze prozesu honekin.

Hau da beraz, Erreterian Musika Kultur Elkartearen honek, bere 50. Urteurrena ospatzen duen bitartean, 2000. urte horri begira landu duen eraberritze eta egokitze lana. Azken finean, gure Musika Kultur Elkartearen urte luzeotan jorratu duen bidea, gure herriko kulturaren eta historiaren beste zati txiki horietako bat besterik ez da, eta ezin ahaztu genezake herri baten nortasuna bere kulturaren datzala.